



2026/1 OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2026ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña
Aitor Manterola Garate
Marina Bidasoro Arozena
Asier Arakistain Alberdi
Maite Egaña Larrañaga
Unai Larrañaga Uranga
Nerea Goiria Mendiola
Itziar Etxabe Etxabe
Joxe Mari Azkue Castillo
Jose Miguel Antia Albizu
Ainhoa Illarramendi Azkue
Iker Mardaras Arrieta
Xabier Odriozola Etxaniz
Mireia Aranbarri Ieregi
Ander Olaizola Esnal
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratutakoak: -

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Denok gaudenez ta ordua denez hasiera emangoiou urtarrileko ohiko osoko bilkurari.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
(11/2025 zenbakia. 2025.11.27)
(12/2025 zenbakia. 2025.12.18)



Azaroko Ohiko Osoko Bilkurako eta abenduako Ohiko Osoko Bilkurako aktak aho batez onartu dituzte.

2.- IRIZPENAK

2.1.- ERREFORTZURAKO KONTRATATUTAKO ERDI MAILAKO DIRUZAINZAKO TEKNIKARIAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

LEHENA: 2025eko abenduaren 18an Amaia Bengoetxea Arrozpidek, aldi baterako Diruzaintzako Erdi mailako teknikari bezala kontratatutako langileak, aldi berean beste lanpostu bat garatu ahal izateko bateragarritasun eskaera aurkeztu zuen. Eskaera Manuel Lekuona Kultur Bakunean idazkari tekniko moduan lan egiteko da eta astean 10 orduz betetzeko izango da. Gainera, adierazten du ordutegiak ez duela oztopatuko Zumaiako udaleko betebeharrak eta ordutegiarekin.

BIGARRENA: Aplikatu beharreko legeria honako hau da:

— Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateginaren 145. artikulua.

— 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa.

— Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 16., 95.2.n) eta azken xedapenetako hirugarrena.

— Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 50.9 artikulua.

— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.q) eta 47.1 artikulua.

HIRUGARRENA: Bateriaezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 11 artikulua araberako administrazioan burutzen diren jarduerak eta jarduerak pribatutan burututakoak, lotura dutenean bateraezintasunak izango dira.

LAUGARRENA: Aipatutako Legeko 12 artikuluan administrazio langileek ze jarduerak pribatu ezin dituzten burutu arautzen du:

1.- Lanpostu publikoan azken bi urtetan parte hartu duen gaiekin zer ikusia duten jarduerak pribatuetan parte hartzea.

2.- Enpresa pribatuko administrazio kontseiluko partaide izatea eta enpresa honen jarduerak administrazio publikoko departamentuko gaiekin zuzenean lotuta dagoenean.

3.- Sektore publikoan parte hartzen duten enpresatako kargu bat izatea.

4.- Aurreko paragrafoan aipatutako enpresetan %10ko parte hartzea izatea.



Aipatutako legeko 16. artikularen arabera erabateko baliagarritasun gehigarria daukaten postuei ezingo zaie bateragarritasunik aitortu. Udalhitzeko 76. artikulua dio erabateko baliagarritasunak (disponibilidad) eta lanaldi luzatua duten lanpostuak gehienez %25ko osagarria izango dutela. Kontuan izanda eskatzailea ez dela aipatutako egoeratan aurkitzen eta bateragarritasun-aitorpenak ez duela interesdunaren lanaldia eta ordutegia aldatuko eta, hala balitz automatikoki ondoriorik gabe geratuko dela, ez da eragozpenik ikusten bateragarritasun eskaera aitortzeko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko urtarilaren 21eko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: bost bozka (3 EH-BILDU eta 2 EAJ)

Kontra:

Abstentzioa:

irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

- 1.- Amaia Bengoetxea Arrozpidek, aldi baterako Diruzaintzako Erdi mailako teknikari bezala kontratatutako langileak, aldi berean beste lanpostu bat garatu ahal izateko bateragarritasun eskaera aitortzea, beti ere abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 12 artikulua diona kontuan izanik.
- 2.- Bateragarritasun-aitorpenak ez du interesdunaren lanaldia eta ordutegia aldatuko eta, hala balitz automatikoki ondoriorik gabe geratuko da.

ASIER ARAKISTAIN ALBERDI:

Arratsalde on. Hemen aipatu diruzaintzako erdi mailako teknikariak bateragarritasun eskaera luzatu dula. Beste lan bateko eskaera bat jaso du arratsaldez 10 orduz lan egiteko. Guri ez digu eragiten. Guregan ondorioik ez daka. Eta orduan onartzeko arazoik ez deu ikusten ta bueno, onartzeko bozkatu in ber deu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Asier. Zeoze komentatzeko? Bueno ba bozkatu eingo deu.



Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ERREFORTZURAKO KONTRATATUTAKO ERDI MAILAKO DIRUZAINZAKO
TEKNIKARIAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA ONARTZEA

3.- MOZIOA

3.1.- ZUMAIKO 0-18 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN EGOERARI BURUZKO MOZIOA.

MOZIOA EZTABAIDATU ALA EZ:

Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

AITOR MANTEROLA GARATE:

Zumaian, 0-18 adin tarteko hezkuntza publikoa gaur egun zazpi eraikinetan banatuta dago, eta horrek antolaketa-arazoak eta jarraikortasun falta eragiten ditu. Bereziki larria da haurreskolen egoera: Arrangoletako haurreskola behin-behineko moduluetan dago, duela ia 20 urte eraikia, eta baldintza desagokietan. Gainera, 2023tik aurrera haurreskolen doakotasunak eskariaren gorakada handia ekarri du, eta plaza publikoen gabezia agerikoa da.

Aita Mari Herri Eskolako eraikina ere zaharkituta dago; beheko eta bigarren solairuak berritzeko premia larria dago, baita zuzendaritza eta administrazio espazio egokiak sortzekoa ere. Testuinguru horretan, hezkuntza komunitatearen ekimenez, Aita Mari eraikinean jangela-sukalde eredu berria txertatzeko proposamena egin zen, bertan kozinatzea eta tokiko produktuak erabiltzea helburu zuena. Proiektu hori Hezkuntza Sailak hasiera batean begi onez ikusi eta lantzeko oniritzia eman zuen, eta horren baitan haurreskola, HH eta zuzendaritza-administrazioa integratuko zituen planteamendu zabalago bat egin zen, aurreproiektua eta xehetasun-azterketa eginda utziz.

Hala ere, urteak igaro ondoren, proiektu hori bertan behera geratu da, Hezkuntza Sailak atzera egin duelako, arrazoien azalpen argirik eman gabe. Bitartean egoera okertzen joan da, bereziki haurreskolen eskariaren hazkundearen ondorioz eta eraikinen baldintzek okerrera egin dutelako.



Egoera honen aurrean, beharrezkotzat jotzen da Zumaian sei unitate izango dituen haurreskola publiko bakarr izatea, eta 0-18 adin tarteko hezkuntza publikoa eremu berean antolatzea, haur guztiek baldintza duinetan hezkuntza publikoan sartzeko duten eskubidea bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, mozio honen bidez, Zumaiako Udalari eskatzen zaio txosten honen edukiarekin bat egitea eta bere atxikimendua adieraztea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari berriz, hasieran onartutako proiektua zergatik baztertu duen arrazoitzea eta irtenbide egonkor bat lehenbailehen proposatzea.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko. Zerbait komentatzeko? Bai, zure hitza, Xabier.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Kaixo, arratsalde on. Abenduak 10eko batzarrian Aitorrek esplikatu zigun Hezkuntza sailari bideratuko zitzaion txostena zein zan. Hasieran borradorea zan ta guztiz ados geunden. Ta geatu ginan, ba bueno, behin betiko txostena eduki arte zain eongo ginala eta urtarrilak 8an ya Lubaki guraso elkarteak pasa zigun txosten definitibua eta guztiz ados geundela esan genion. Urtarrilak 9an hezkuntza teknikariarekin sinatzeko eta hori guztia esan genion. Beraz, gu guztiz ados gaude txostenarekin eta baiezkoa bozkatuko degu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Xabier. Duñike, zerbait komentatzeko?

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE:

Ba baita ere. Guk ere alde egingo deula gure botuakin eta ados gaudela txostenekin eta a ver benetan bideratzen dan irtenbide bat. Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno, azken finian, hor txostenian aipatzen dan azkenengo bileraren nundik norakuan ezezkoa jaso genunian, bertan eon ginan Aitor eta ni, bai aipatu zutela berriro aurkezteko eskaera baina hezkuntza komunitatea. Ez Udaletxea, baizik eta hezkuntza komunitatea. Beaeikin bildu ginanian hori esan genien. Guk, ba bueno, ze ibilbide in degun honeaino eta ya martxan ipintzeko momento hori emate zunian zeola, gero atzerapauso bat eon zan eta arrazoi argik ez geneukanez, ba beaiek hezkuntza komunitatea egiteko eta gero dirudienez ba beaiek ere nahi dute atxikimendua udalarena eta bertan parte



hartzan degun alderdi politikuena. Azken finean, horrek indarra euki dezan hezkuntzakin negoziaketak egitean. Eta hori da gaurko helburua. Espero Zumaiko korporazioak 3 alderdi politikoaren oniritziakin bere pisua re euki dezala Hezkuntza Sailak hartu beharko itun erabakietan eta ea eskaera hau aurrea eramatea daukagun. Ba besterik gabe bozkatu ingo degu.

Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIKO 0-18 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN EGOERARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA

4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

4.1.- 2025EKO 22., 23., 24. ETA 25. ERREPARO ORRIAK ETA HAIEN ALKATE EBAZPENAK JAKINARAZTEA.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (22/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiko Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratutako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020



TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			
-----------------------------	---	--	--	--

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiakoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.



c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatupei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoak."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo



nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedienteetan jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiot, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikuluan c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteetan akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo



kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/10/27	2575006890	TECHNOGYM TRADING, S.A.	IRAILA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Program)	66,11
2025/10/27	2575006891	TECHNOGYM TRADING, S.A.	IRAILA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Performance)	502,00
2025/10/27	2575006892	TECHNOGYM TRADING, S.A.	URRIA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Program)	66,11
2025/12/1	1078/25	KASTORE GEST, S.L.	AZAROKO EGUNAK: OXFORD	1.071,81
2025/12/1	1079/25	KASTORE GEST, S.L.	Zumaiako Udala komentuko bisitak Azaroak 2,8,9,28,29	914,76
				2.620,79

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.



b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

ALKATE EBAZPENA

AURREKARIAK

2025eko abenduaren 5ean kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (22/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/10/27	2575006890	TECHNOGYM TRADING, S.A.	IRAILA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Program)	66,11
2025/10/27	2575006891	TECHNOGYM TRADING, S.A.	IRAILA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Performance)	502,00
2025/10/27	2575006892	TECHNOGYM TRADING, S.A.	URRIA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Program)	66,11
2025/12/1	1078/25	KASTORE GEST, S.L.	AZAROKO EGUNAK: OXFORD	1.071,81
2025/12/1	1079/25	KASTORE GEST, S.L.	Zumaiako Udala komentuko bitak Azaroak 2,8,9,28,29	914,76
				2.620,79

ESKU43458ac1-e516-461a-a766-d249f09e01a0



ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (23/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurrekontuazkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.

c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparak."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.



3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

4. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen



horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientearen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

5. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiot, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
6. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu

izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedientearen aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:



FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/10/27	257500689 3	TECHNOGYM TRADING, S.A.	URRIA: LUBAKI KIROLDEGIKO GIMNASIOKO MAKINARIAREN MANTENUA (Care Performance)	502,00
2025/11/28	250417	ARAZI IKT, S.L.	AZAROA-ALGORRI, ZUMAIKO NATUR BALIABIDEEN INTERPRETAZIO ZENTROAREN KUDEAKETA	5.563,10
				6.065,10

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (24/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu



Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
